50E/2021 EBAZPENA, irailaren 29koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, euskarazko ondare immateriala hedatzearren haurrei zuzendutako ikus-entzunezko proiektuaren kontratua IAMETZA INTERAKTIBOA, S.L. enpresari esleitzea onartzen duena.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0005-CP01-2021-000035**
UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Tel.:848 433489 Helbidea: Paulino Caballero K., 13, 31002 Iruña Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren mendeko Euskararen Sustapenaren eta Planifikazioaren Zerbitzuak dituen eginkizunen artean dago adierazpen kultural eta artistikoak sustatzea, ikus-entzunezko ekoizpena eta euskaraz gauzatzen diren bestelako ekintzak edota euskararekin lotura dutenak.

Adierazitakoa betetzeko, euskarazko ondare immateriala hedatzearren ikus-entzunezko proiektu bat sortzeko kontratazioa proposatu zen, bereziki haurrei zuzendua, eta ikaskuntza ludikora bideratua.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 9an emandako 46/E/2021 Ebazpenaren bidez, euskarazko ondare immateriala hedatzearren ikus-entzunezko proiektu bat sortzeko kontratazioa garatzeko pleguak onartu ziren, bereziki haurrei eta ikaskuntza ludikoari zuzendua, eta 25.000 euroko gastua baimendu zen.

Xede horretarako, lizitazio prozedura bat tramitatu da Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren bitartez (PLENA). Hori egin ondoren, espedientearen unitate kudeatzaileak kontratazio hori IAMETZA INTERAKTIBOA, S.L.ri esleitzeko proposamena egin du.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuaren 3. eta 11. artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. IAMETZA INTERAKTIBOA, S.L enpresari (IFZ ,B20963302) esleitzea euskarazko ondare immateriala hedatzearren haurrei zuzendutako ikus-entzunezko proiektu bat sortzeko kontratua, gehienez ere 24.684 euroan (BEZa barne), 2021eko gastuen aurrekontuko "Euskarazko ondare immaterialerako Nafarroako Mediateka - Suspertze plana" izeneko B30002 B3200 6081 334100 partidaren kargura.

2. Adjudikazioaren eraginkortasuna etenik egonen da 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen denetik aitzina. Kontratua 15 egun naturaleko epean formalizatuko da, etenik egoteko epea bukatzen denetik aurrera.

3. Gastua egiteko baimena deuseztatu eta erreserbatik 316 euro askatzea 2021eko gastuen aurrekontuko "Euskarazko ondare immaterialerako Nafarroako Mediateka - Suspertze plana" izeneko B30002 B3200 6081 334100 partidan eskuragarri gera dadin (0410000796 eta 0410000982 kontabilitate espedienteak).

4. Ebazpen hau jakinaraztea IAMETZA INTERAKTIBOA, S.Lri, behar diren ondorioak izan ditzan. Azken honi ohartaraziz, Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa paratzen ahal da Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 126. artikuluaren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera edo, bestela, aukeran eta bestelako edozein errekurtso ordezkatuz, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa paratzen ahal da Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita hamar egun naturaleko epean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 122. artikulutik 130. bitartean xedatutakoaren arabera.

5. Ebazpen hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan Ekonomia eta Ogasun Departamentuak duen kontu-hartzailetzara, aipatutako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Kudeaketa Administratibo eta Ekonomikoaren Ataleko Kontabilitate Zentrora, Euskarabideko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzura, Euskara Sustatzeko Atalera eta Programen Bulegora.

Iruñean, 2021eko irailaren 29an,

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
MIKEL ARREGI PÉREZ